



GASTEIZKO UDALAREN ETA MANUEL IRADIER ELKARTE AFRIKANISTAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 8an

BILDURIK

Alde batetik, ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ andrea, GASTEIZKO UDALEKO Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria.

Eta bestetik, ÁLVARO IRADIER ROSA, MANUEL IRADIER ELKARTE AFRIKANISTAREN lehendakaria, beren izenean eta hura ordezkatzuz – IFZ: XXXX3784

EXPONEN

2025eko urtarrilaren 1ean, Gasteizen, ia 13 mila pertsona ziren Afrikako herrialderen batean jaiokak, alegia, udalerriko biztanleria osoaren % 4,97.

Ordezkaritasun hori, gainera, hirian duten partaidetza sozialean nabari da, neurri handi batean, antolatuta daudelako hirian dauden afrikarren aniztasunaren interesak adierazten dituzten elkarte eta taldeetan.

2022-2025 aldirako Garapenerako Lankidetzaren Gida Planak —eguneratzen den arte luzatua— ildo estrategikoen artean jasotzen ditu migrazio-fenomenoak eta lankidetzak, eta elkarlanean aritzen da eta/edo sustatu egiten ditu Gasteizko migratuen jatorrizko herrialdeen errealitatea ikusaraztea eta migratzeko erabakia eta haren ondorioak azaltzen dituzten arrazoiak sakontzea helburu duten programak. Eta, gainera, Hegoaldeko herrialdeetako pertsonekin eta kolektiboekin bizikidetzak eta interakzioak hobetzen eta herritar gisa parte hartzen laguntzea, eta immigrazioaren aurkako jarrera xenofoboaren eta aurreiritzien aurka egitea.

Helburu horien barruan, 2013tik aurrera, Gasteizko Udala, Garapenerako Lankidetzaren zerbitzuaren bidez, AFRIKALDIaren antolaketan elkarlanean aritu da. Hasiera batean, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak garatutako zinema-zikloa zen, eta, 2021etik aurrera, nazioarteko jaialdi bihurtu zen Kultura Banderak Elkartearekin elkarlanean. Hala, AFRIKALDIA indartu, eta Afrikako Zinemaren Euskal Jaialdia izatea lortu du.

Afrikako Zinemaren Euskal Jaialdia (AFRIKALDIA) gauzatzeko, hirian dauden Afrikako diasporako beste entitate batzuk ere batu dira.

Bi aldeek garrantzitsutzat eta egokitzat jotzen dute, beraz, Gasteiz eta Afrikaren arteko loturak indartuko dituzten ekintzak egiten laguntzea, interes berezia jarrita



gasteiztarren jatorrizko herrialdeetan, eta Gasteizen bizi diren pertsonak inplikatuta, haien jatorria afrikarra, euskalduna edo beste edozein dela ere.

ADIERAZTEN DUTE

Tokiko Gobernu Batzorde 2026ko ekainaren 5ean ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, 2026ari dagokion Afrika-Gasteiz lankidetzaz hitzarmena formalizatzea onartu da, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarekin, **25.000,00 euroan**.

Azaldutakoaren arabera, bi alderdiek, egintza honetan esku hartzeko gaitasun eta eskumen nahikoa eskumen eta gaitasun aitortzen diote elkarri bi alderdiek, eta, horrenbestez, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza izendunaren hitzarmen hau jasota dago indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027).

Helburu hau lortu nahi da hitzarmenaren bidez: “Garapen-bidean dauden herrialdeen errealitatea hurbilduko duten, desberdintasun globalei buruzko hausnarketa kritikoa sustatuko duten eta herritarrak justizia globalaren alde aktibatzen lagunduko duten sentsibilizazioko eta gizartea eraldatzeko hezkuntzako ekintzak eta proiektuak babestea”.

BIGARRENA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Afrikako Zinemen Euskal Jaialdiaren (AFRIKALDIA) 2026ko edizioa garatzen laguntzea. Zehazki, Afrikako hainbat herrialderen errealitatea ikusarazteari esker kontzientzia kritikoa eta eraldaketa soziala sustatzen duten ekintzak, Afrikako kultura-aniztasunaren aitortza bultzatzen dutenak, estereotipo, aurreiritzi eta diskurtso arrazistei aurre egiteko. Horrekin, eraldaketa hirukoitza dugu helburu:

- Pertsonarteko harremani dagokienez, jatorri desberdina dutenen arteko elkarriketa bultzatzea, elkarren arteko ikaskuntza eta aniztasunaren aitortza errazteko. Azken batean, aurreiritzi indibidualak deseraikitzeke eta afrikarren eta/edo migratuen errealitatea ikuspegi kritiko, begirunetsu eta enpatikotik irakurtzeko prozesuak ezartzea.
- Maila kulturean, Afrikari eta bertako diasporari buruzko iruditeria kolektiboak zabaltzea, Afrikako ahotsak abiapuntu dituzten askotariko narratibetan oinarrituta. Afrikako hainbat herrialdeetako arazo konplexuak hobeto ulertzen laguntzea, baita horiek Gasteizko errealitatearekin duten lotura ere.



- Maila instituzionalean, kultura-, hezkuntza- eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa-espazioak indartzea, hainbat eskalatan instituzionalizatutako praktika arrazistak identifikatu eta ulertzeko, eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako gizarteak lortzera bidean alternatibak eraikitzeko. Oro har, politika publikoen diseinuan eta, zehazki, hezkuntza- eta kultura-programetan giza eskubideak, ekitatea eta justizia globala oinarri duten ikuspegiak sustatzea.

HIRUGARRENA.- PARTAIDETZAREN EGITURA

Manuel Iradier Elkarte Afrikanista arduratuko da hitzarmen honetan jasotako jarduerak eta funtsak kudeatzeaz. .

LAUGARRENA: GARATUKO DIREN EKINTZAK

Hitzarmen honen esparruan, herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak garatuko dira herritartasun globalerako hezkuntzaren ikuspegitik, Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren politikekin koherentzian.

Ekintza horiek zeharka txertatuko dituzte giza eskubideen ikuspegia, genero-ikuspegia, ekitatearen eta justizia globalaren sustapena, baita Hegoalde globaleko narratibak eta errealitateak ikusaraztea ere, nazioarteko desparekotasunak kritikoki ulertzen eta herritar konprometituak eraikitzen laguntzeko.

Honako ardatz nagusi hauen inguruan egituratzen dira ekintzak:

1. JARDUERA. Zinema proiektzioak

Afrikako zinemen eta bertako diasporen proiektzio-ziklo bat da, herritarrei hainbat errealitate sozial, kultural eta politiko hurbiltzera bideratua, protagonisten ikuspegitik.

Lehenetsi egingo da proiektzioak jatorrizko bertsioan eskaintzea, eta gaztelaniazko eta euskarazko azpitituluak jarriko dira, irisgarritasuna bermatzeko eta ikusleengana errazago heltzeko, haien integritate kultural eta linguistikoa errespetatuta.

Tresnak horren bidez, honako hau sustatuko dugu:

Afrikako eta bertako diasporen askotariko narratibak ikusaraztea.

Estereotipoak eta aurreiritziak deseraikitzea.

Begirada kritikoa sustatzea desparekotasun globalei eta horien egiturazko kausei buruz.

2. JARDUERA. Elkarrizketa, hausnarketa eta sentsibilizazio guneak

Proiektzioei buruzko elkarrizketa-espazioak antolatzea da, Afrikako zinemarekin lotura duten aditu, sortzaile edo eragileen partaidetzarekin, eta baita lankidetzaren, hezkuntzaren eta eraldaketa sozialaren eremukoekin ere.

Espazio horiek hainbat formatu izan ditzakete, hala nola solasaldiak, mahai-inguruak, ikusleekin topaketak, heziketa-saioak eta parte hartzeko beste dinamika batzuk, hainbat testuinguru eta publikoetara egokituta.



Helburua:

Hausnarketa kritikoa eta pentsamendu konplexua sustatzea Hegoalde globaleko errealitateen inguruan.

Kulturarteko elkarrizketa eta aniztasunaren aitortza sustatzea.

Herritarrak giza eskubideen, genero-berdintasunaren eta justizia globalaren inguruan sentsibilizatzen laguntzea.

Ekintza horiek herritartasun globalerako sentsibilizazio proiektuetarako deialdiaren barruan sartzen dira; proiektu horien helburua hirian elkartasunaren, giza eskubideen eta konpromiso sozialaren kultura sustatzea da.

Jarduerak hiriko hainbat espaziotan egin ahal izango dira, formatuak eta edukiak publikoari egokituta (hezkuntza-, komunitate- edo kultura-eremua), erantsitako jardueren memorian ezarritakoaren arabera.

3. JARDUERA. Herritartasun globalerako komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia

Komunikazio-estrategia bat ezartzea herritarrak sentsibilizatzeko, Afrikako eta bertako diasporaren errealitateen ulermen kritikoa sustatzeko, baita desparekotasun globalen eta horien egiturazko kausen ulermen kritikoa sustatzeko ere.

Estrategia hori bat etorriko da herritartasun globalerako hezkuntza-ikuspegiarekin, eta zeharka txertatuko ditu giza eskubideen ikuspegia, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta Hegoalde globaleko ahotsen eta narratiben aitortza.

Hainbat kanalen bidez (komunikabideak, sare sozialak eta euskarri digitalak), jaialdiaren jardueri buruzko informazioa emateaz gain, honako helburu hauek lortzen lagunduko duten edukiak zabalduko dira:

Afrikako kultura-aniztasuna estereotiporik gabe ikusaraztea.

Pentsamendu kritikoa sustatzea Afrikako irudikapenen inguruan.

Justizia globalaren, kulturarteko bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren balioak sustatzea.

Estrategia hori proiektuaren jarduera guztiekiko zeharka garatuko da, eta haren irismena eta inaktua indartuko dira sentsibilizazio sozialari dagokionez.

Hitzarmen honi aurreikusitako jardueren deskribapen-fitxa erantsi zaio (2. eranskina). Fitxa horretan jardueri buruzko informazio garrantzitsua jasotzen da, dela eduki, diseinu metodologiko, plangintza, baliabide, estrategia eta inplikaturako beste eragile batzuei dagokienez, dela aurreikusitako kostuei dagokienez.

BOSGARRENA: URTEKO HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau 2026eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.



SEIGARRENA: GASTEIZKO UDALAREN EKARPENA

Gasteizko Udalak 25.000,00 € bideratuko ditu hitzarmen honetarako, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren 2026erako aurrekontuko 2450–2391–4821X partidaren kargura, eta honako gastu-aurrekontu honen arabera:

- Proiektuak egiteko beharrezko diren gastuak estali ahal izango dira: giza baliabideak; proiektuaren jardueretan parte hartzen dutenen bidaia-, ostatu- eta mantenu-gastuak; materialak eta zerbitzu-kontratazioa; jarduera eta ekitaldien antolakuntzak sortutako bestelako gastuak; jardueren zabalkundea.
- Giza baliabideen arloko gastuek ezingo dute izan dirulaguntzaren ehuneko 80tik gorakoak. Aurrekontuan, bereizi egin beharko dira entitate eskatzaileek kontratatutako langileei dagozkien gastuak eta kanpo-kontratazioei dagozkienak. Era berean, proiektuko jardueretan emandako orduen eta soldata kostuen arabera justifikatu beharko dira entitate eskatzaileen langile-kostuak.
- Zeharkako kostuek edo funtzionamendu orokorrekoek ezingo dute gainditu diruz lagundutako guztizkoaren % 7 (1.750 €).
- Jarduera eta gastu hauetarako ezingo da dirulaguntzarik jaso: entitate eskatzailearen ohiko jardueren berri emateko buletin edo aldizkariak argitaratzea; Iparreko herrialdeetako egoiliarrek garapen-bidean dauden herrialdeetara egiten dituzten bidaiak; entitate eskatzailearen ohiko barneko batzar, jardunaldi eta mintegiak eta ebaluazioak

Kontzeptua	Zenbateko
1. jarduera. Zinema proiektzioak	9.095,92 €
1. Giza baliabideak (plangintza, koordinazioa eta herritartasun globalerako hezkuntzaren ikuspegia)	5.404,08 €
2. Lanen emanaldia eta irisgarritasuna (euskarazko eta gaztelaniazko azpigituluak, irisgarritasuna eta hizkuntza-aniztasuna bermatzeko)	3.691,84€
2. jarduera. Elkarrizketa, hausnarketa eta sentsibilizazio guneak	8.320,75 €
1.Giza baliabideak (plangintza, koordinazioa eta herritartasun globalerako hezkuntzaren ikuspegia)	5.404,08 €
2.Herritartasun globalerako komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia: - Sentsibilizazio sozialerako ikus-entzunezko edukien ekoizpenaren koordinazioa - Hezkuntza-sentsibilizatorako eta -zabalpenerako materialak diseinatzea - Herritartasun globalera zuzendutako eduki digitalen kudeaketa - Komunikabideekiko harremana eta giza eskubideei eta kultura-aniztasunari buruzko edukien hedapena	2.916,67 €
3. jarduera. Herritartasun globalerako komunikazio- eta	5.833,33 €



sentsibilizazio-estrategia	
Herritartasun globalerako komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia:	
- Sentsibilizazio sozialerako ikus-entzunezko edukien ekoizpenaren koordinazioa	
- Hezkuntza-sentsibilizazioko eta -zabalpenerako materialak diseinatzea	
- Herritartasun globalera zuzendutako eduki digitalen kudeaketa	
- Komunikabideekiko harremana eta giza eskubideei eta kultura-aniztasunari buruzko edukien hedapena	
	5.833,33 €
Zeharkako kostuak	1.750,00€
TOTAL	25.000,00 €

Aurrekontu honetan jasotako zenbatekoak aldatu egin daitezke Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak proposatuta eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarekin akordioa lortu ondoren, beste finantzatzaile batzuen esleipena ezagutu eta gero, betiere onartutako funtsak zerbitzuarekin lotura handiena duten kontzeptuetara bideratzeko.

ZAZPIGARRENA: GASTEIZKO UDALAREN DIRU-ORDAINKETA

Gasteizko Udalak ordainketa bakarrean abonatu dio Manuel Iradier Elkarte Afrikanistari urteko hitzarmen honi dagokion ekarpena, alderdiek sinatu ondoren.

Ordaindu aurretik, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar ditu, edo Gasteizko Udalari baimena emango dio Foru Ogasunean, Gasteizko Udalean eta Gizarte Segurantzarekiko dituen zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

ZORTZIGARRENA: BESTE UDAL-LANKIDETZA MOTA BATZUK

Hitzarmen honetan aurreikusitako ekintzak indartzeko, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua artikulatu egingo da interesa duten beste udal-zerbitzu batzuekin, udal-langileen lankidetzaren teknikoaren edo esperientzia- eta ezagutza- trukeen bidez.



BEDERATZIGARRENA: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK, UDAL ESPAZIOAK LAGATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASETAN

Entitateak eskubidea izango du salbuespenak eta hobariak izateko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, kulturako, kongresuetako edo funtzio anitzeko esparruak erabiltzeagatik eta/edo udal gizarte-etxeak edo udal-titulartasuneko beste edozein establezimendu erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasetan, betiere, baldin eta lagapena hitzarmen honetan adostutako helburuen edo jarduerak gauzatzeko bada, betiere dagozkien ordenantza fiskaletan ezarritako salbuespen eta hobarien araubidearekin bat.

Gutxienez 15 egun lehenago eskatu beharko da lagapena.

HAMARGARRENA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren garapenaren jarraipen eta ebaluazio egokia egiteko, honako irizpide hauek ezarri dira:

- Jarraipen-batzorde bat eratzen da, hitzarmen honen garapen orokorra gainbegiratu dezan. Batzorde hori Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko teknikari batek edo hainbatek eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistako ordezkariak osatuko dute.
- Batzordeak programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak oro proposatu ahalko ditu.
- Urteko hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren garapenean aldaketa garrantzitsuren bat planteatzen bada, batzorde honen baitan egin beharko da.
- Batzordeak 2026eko urteko hitzarmenean aurreikusitako ekintzak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen adina bilera egingo ditu, eta horien akta laburtuak egin beharko ditu.
- Jarraipen-bilera horietan, hala badagokio, proiektua kofinantzatu dezaketen erakundeen ordezkariak parte hartu dezakete, betiere lotura badute hitzarmen honen 4. puntuan adierazitako ekintzekin.

HAMAIKAGARRENA: JASOTAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak jasotako dirulaguntza izenduna justifikatu beharko du, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluaren ("Dirulaguntzak justifikatzea") 33. artikuluan ezarritakoaren eta ezarritako epeen arabera. Honako hauek jasoko ditu justifikazio horrek:

Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100



justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

Justifikatzeko sistema. Egindako gastuaren justifikazioko kontu arrunta aurkeztu beharko du dirulaguntzaren onuradunak hura justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz.

Justifikatzeko kontua aurkeztuz justifikatu beharko du jasotako zenbatekoa onuradunak, hiru hilabeteko epean, diruz lagundutako programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta.

Txosten narratiboak eta justifikazio-memoriak euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta dirulaguntza jasotzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko dute. Zati narratiboa testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...—. Digitalizatzea ezinezkoa bada, euskarri egokian aurkeztu beharko dira.

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Hitzarmen honi jarraiki egindako jardueren **azalpen-txostena**.
- **Jardueren kostua justifikatzen duen oroitidazki ekonomikoa**, justifikazio-kontu arruntari jarraiki osatua (Udalaren webgunean eskuragarri dauden ereduaren arabera: www.vitoria-gasteiz.org/lankidetza), honako hauek jasoko dituenak:
 - **Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa.** Proiektua edo jarduera hainbat entitate publikok edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da informazio hau. Azken kasu horretan, ez dago horien ordainketa justifikatzen duten agiriak aurkezteko beharrik (nominak, fakturak eta abar).
 - **Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.** Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da informazio hori. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio.

Eskudirutan ordaintzekotan, legez ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da; webgune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu-agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.



Hartu-agirian datu hauek agertu behar dira:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZaren atxikipena; dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da.
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

• **Proiektuaren /jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.**

• **Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.**

Informazio hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (gaur egungo RNT eta RLC agiriak, gaztelaniazko *Relación Nominal de Trabajadores* eta *Relación de Liquidación de Cotizaciones*, hurrenez hurren) erantsita. Agiri horiek enpresek beren langileengatik Gizarte Segurantzari ordaindu behar dizkioten kuotei buruzko informazioa jasotzen dute.

• **Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.**

Adierazten diren gastu-egiaztagiriak erantsi behar dira, eta justifikazio-kontu arrunteko atalak bete.

Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

HAMABIGARRENA.- BESTE BETEBEHAR BATZUK

Ordezko izaerarekin eta hitzarmen honetan aurreikusten ez denari dagokionez, toki-korporazioei aplikatu beharreko indarreko araudian eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantzan xedatutakoaren mende egongo dira aldeak, eta, besteak beste, erregelamendu-xedapen horren 12. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

HAMAHIRUGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA

Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak hitzarmenaren edukiak aldatzeko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkio Jarraipen Batzordeari. Aldaketa-proposamenak hitzarmeneko aurrekontu osoaren % 15etik gorako aldaketa badakar partiden edo jardueren artean, aldatzeko erabakia Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du, alde



interesdunak alde zurretik eskatuta. Nolanahi ere, hitzarmenaren indarraldia bukatu aurretik egin beharko da eskabidea.

Partiden gastuaren egozpena dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 baino gehiago desbideratzen bada aurkeztutako aurrekontutik, elkarteak horren berri eman beharko dio Gasteizko Udalari, eta aurrekontuaren aldaketak jasotzen dituen beste aurrekontu bat helarazi beharko dio, Gasteizko Udalak alde zurreko baimen espresua eman dezan, eta ondorioak izan ditzan. Aldaketaren baimena organo eskudunaren ebazpen bidez emango da.

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berriaz eta alde zurretik. Berriaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

HAMALAGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA

Entitate onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Entitateak bere gain hartzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu horrek, baita Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta une bakoitzean aplikatzekoa den datuen babesaren arloko gainerako araudia ere; orobat, konpromisoa hartzen du xedapen horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko hitzarmen honen barruan pertsona fisikoengandik lortu eta erabilitako datuei dagokienez.

Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak datu horiek ez inori lagatzeko konpromisoa hartzen du.

HAMABOSGARRENA: UDAL FINANTZAKETAREN PUBLIZITATEA DIRUZ LAGUNDUTAKO INTERES PUBLIKOKO JARDUERAN

Entitate onuradunek konpromisoa hartzen dute Gasteizko Udalaren laguntza jaso duela adierazteko, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituen euskarri edo plataforma guztietan.

Era berean, udal-finantzaketaren berri eman beharko du, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituen material inprimatuetan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektronikoen eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko dute, testu honekin: "Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina entitate onuraduna da edukiaren erantzule bakarra."



Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan.

HAMASEIGARRENA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA

Dirulaguntzaren onuradun den entitateak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa bete beharko du; martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak —Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena— 3. artikuluan ezarritako printzipioetara egokitu beharko du bere jarduera, baita testu berberaren 19., 23. eta 24. artikuluetara ere; eta konpromisoa hartu beharko du genero-ikuspegia txertatzeko neurriak ezartzeko, batez ere, hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta datuak sexuaren arabera bereizita biltzea eta aurkeztea.

Gainera, hitzarmen honen esparruan abian jarritako ekintzek genero-ikuspegia zeharka txertatu beharko dute diseinatu, antolatu eta gauzatzean, Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planean (2023-2030) ezarritakoari jarraikiz.

HAMAZAZPIGARRENA.- GARDENTASUN-BETEBEHARRAK

Honako lege-arauetan ezarritako gardentasunaren eta publizitate aktiboaren betebeharrak bete beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2005 Legea; Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3. eta 8.c artikulua; Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 49. artikulua.

HEMEZORTZIGARRENA.- BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango dira honako hauek: akordioaren klausulak ez betetzea, eta haren izaerarekin lotuta indarrean dagoen legeriak —bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua— jasotzen duen beste edozein ez betetzea.

HEMERETZIGARRENA.- APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Hitzarmen hau aplika daitezkeen administrazio-zuzenbideko arauen mende egongo da, baita honako hauen mende ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean hitzarmenei buruz ezarritakoa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Asociación Africanista
MANUEL IRADIER

Eta, adierazitako guztiarekiko adostasun eta oniritziaren erakusgarri, hitzarmen hau izenpetu dute aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Ana Rosa López de Uralde

Concejala Delegada

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako
Lankidetzaren Saila

Álvaro Iradier Rosa

Lehendakaria

Manuel Iradier Elkarte Afrikanista



CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ CON LA ASOCIACIÓN AFRICANISTA MANUEL IRADIER 2026

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2026

REUNIDOS

De una parte, la Sra. Dña. ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE, en su calidad de Concejala-Delegada del Departamento de Deporte, Salud y Cooperación al Desarrollo del AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ.

De otra, **ÁLVARO IRADIER ROSA**, con DNI XXXX8203-L, en calidad de presidente de la ASOCIACIÓN AFRICANISTA MANUEL IRADIER, con CIF G-01053784.

EXPONEN

Que a 1 de enero de 2025 vivían en Vitoria-Gasteiz casi 13 mil personas nacidas en algún país africano lo que por entonces suponía el 4,97% de la población total del municipio.

Que esta representatividad se observa además en su participación social en la ciudad, gracias, en parte, a su organización en asociaciones y agrupaciones quienes expresan los intereses de la diversidad de personas africanas presentes en la ciudad.

Que el Plan Director de Cooperación al Desarrollo 2022-2025 (prorrogado hasta su actualización), contempla entre sus líneas estratégicas los fenómenos migratorios y la cooperación, impulsando y/o colaborando con programas que permitan visibilizar la realidad de los países de origen de las personas migradas en Vitoria-Gasteiz y profundizar las causas que explican la decisión de migrar y sus efectos. Y, además, que contribuyan a mejorar la convivencia y la interacción con personas y colectivos de países del sur y su participación ciudadana y a combatir las actitudes xenófobas y prejuiciados contra la inmigración.

Que, como parte de estos objetivos, desde el año 2013 el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a través del Servicio de Cooperación al Desarrollo, ha venido colaborando con la organización de AFRIKALDIA. Inicialmente, como un ciclo de cine desarrollado por la Asociación Africanista Manuel Iradier y, a partir de 2021 y en articulación con Kultura Banderak Elkartea, como un festival internacional, llegando a consolidar a AFRIKALDIA como el Festival Vasco de Cines Africanos.

Que para la ejecución de AFRIKALDIA, Festival Vasco de Cines Africanos se incorpora a otras entidades de la diáspora africana presentes en la ciudad.



Que ambas partes consideran importante y pertinente, por tanto, apoyar la realización de acciones que refuercen los vínculos entre Vitoria-Gasteiz y el continente africano, con especial interés en aquellos países de origen de la población de Vitoria-Gasteiz, implicando a personas residentes en Vitoria-Gasteiz independientemente de su origen africano, vasco o de otro territorio.

MANIFIESTAN

Que mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local ordinaria de 5 de junio de 2026 se ha aprobado la formalización del convenio de colaboración AFRIKALDIA, Festival Vasco de Cines Africanos correspondiente al año 2026, con la Asociación Africanista Manuel Iradier, por un importe de **25.000,00 euros**.

En virtud de lo expuesto, ambas partes, reconociéndose capacidad y competencia suficiente para intervenir en este acto, proceden a formalizar el presente convenio de colaboración de acuerdo con las siguientes.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

El presente convenio materializado a través de una subvención nominativa se encuentra recogido en el vigente Plan Estratégico de Subvenciones (2025-2027).

